

Behin betiko ebazpena, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako kompetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen 2024ko azaroaren 29ko Hezkuntzako sailburuaren Agindua, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango duela irakasleen kompetentzia digitala ezartzen du, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gaingitu dutenei.

Beraz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Kompetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gaingitu dutenei.

Zehazki, irakasleen kompetentzia digitalaren B1 eta B2 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan,

IKASTURTEA	IKASTAROAREN KODEA	HASIERA DATA	AMAIERA-DATA
2025/2026	2572BGNI44	2025/11/10	2026/05/31
2025/2026	2472BGNI45	2026/01/13	2026/03/08
2025/2026	2472BGNI46	2026/04/13	2026/05/31

Bigarrena

1. Lortutako irakasleen konpetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Hezigueko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.

2. Egiaztagiriak Estatuko lurralde osoan balio du.

Hirugarrena

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Lucia Torrealday Berrueco
Hezkuntza Politiketako sailburuordea